

HODEIEN ABENTURAK

Bazen behin, Hodei izeneko ume bat. Ipuinak asko gustatzen zitzaizkion eta abenturak ere. Eskolan beti zigortu egiten zuten eskolan ahaztu egiten zituelako etxeko lanak egitea. Egun batean klasea eta gero mendi batean ate bat ikusi zuen, ate hori zabaldu eta beste dimentsio batera joan zen Hodei.

Hodei esnatu zenean munstroa batzuk ikusi zituen eta gogoratu zuen serie bateko munstro berdinak zirela. Munstro bat beregana hurbildu zen eta esan zion: ez beldurtzeko bera dela bakarra ikusi daitekeena berari, eta Hodeiek pentsatu zuen zergatik ez erabili munstro hori Hodei defenditzeko. Munstro horrek pentsatu zuen Hodeiri eramatea leku seguru batera, Hodeiek pentsatu zuen ere lagunak izatea munstroa eta Hodei. Munstroari galdetu zionean munstroak esan zion ezetz, munstroak esan zion defenditu nahi zuela bakarrik, ez lagunak izan.

Munstroa leku segurura eraman zuenean Hodeik flipatu zuen, bere etxea zen eta bat-batean Hodeien gurasoak ikusi zituen baina bere gurasoak ez zuten ikusten zergatik mundu desberdinetan zeuden. Hodei saiatu eta saiatu zen baina ez zuen ezer lortu: munstroak esan zion geratzeko ez zuela nahi negar egin. Orduan Hodei negarrez hasi zen, berak ere munstroa esan zion ispilu bat zela eta Hodeik pentsatu zuen ispilu barrura sartzea.

Hodei sartu egin zen ispiluan eta bere aita eta ama ikusi zituen berriz. Hodei pozik jarri zen.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Hodeiren istorioan.